BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKO LEGEBILTZARREKO HAINBAT TOKITAN ALARMA- ETA DESFIBRILADORE-SISTEMA DUEN LARRIALDI-SARE INTEGRATUA INSTALATU ETA MANTENTZEKO

1. XEDEA.

Kontratuaren xedea da kardiobabeseko zerbitzu integrala kontratatzea, larrialdietako asistentzia eta erantzuteko denborak hobetzeko fibrilazio bentrikularreko kasuetan.

Hori dela-eta, xedea izango da kanpoko defibriladore semiautomatikoz (DESA) hornitutako BI erreskate-zutabe instalatzea eta mantentzea, Eusko Legebiltzarreko bi eraikinetan (parlamentarioan eta administratiboan).

2. EZAUGARRI OROKORRAK.

Babes-guneetan instalatutako larrialdi-sareak ondokoak izan behar ditu:

1. 2 kanpoko desfibriladore semiautomatiko eta horiek edukitzeko 2 zutabe instalatzea.
2. Sistemaren ekipamenduaren mantentze integrala: mantentze prebentiboa, zuzentzekoa eta urrunekoa.
3. Alarma-sistema eta erabileraren jakinarazpena kasu bakoitzean definitutako larrialdi-sare edo eta segurtasun-zentroetara; halaber, kudeaketa-urruneko sistema bati lotuta egongo da mantentzerako (telefono-linearen alta eta kuotak kontratuaren prezioaren barne sartuta egongo dira eta esleipendunaren kontura izango dira).
4. Pertsonal ez-sanitarioarentzako prestakuntza, ekipamenduak era egokian erabiltze aldera araudiak eskatutakoaren arabera.
5. Indarrean dagoen araudiak eskatutako administrazio-izapide guztiak egikaritzea, desfibriladoreak Euskadiko larrialdi-zerbitzuetan alta ematea barne.
6. Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza; ezbehar eta urte bakoitzeko urtero eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga 1.100.000 eurokoa izango da gutxienez. Halaber, desfibriladorea erabilita berehalako arreta ematen duten pertsonen zuzeneko erantzukizun zibila babestuta geratuko da, horiek enpresa esleipendunaren langileak edo haren soldatapekoak ez badira ere. Erreklamazio horiek estaltzeko kopuruak zehaztuko dira ezbehar eta urte bakoitzeko eta biktima bakoitzeko.
7. Zerbitzua emateko beharrezkoak diren elementu guztien instalazioa eta abian jartzea, gehienez ere, kontratua formalizatzen denetik hilabeteko epean egingo da. Abian jartzearen ziurtagirirako, simulazio bat egingo da sistema osoa ondo dabilela egiaztatzeko. Entitate esleipendunak txosten bat egingo du, zeinetan ebaluatu diren alderdiak jasoko diren eta ezarritako ekipamendu bakoitza egokia eta eraginkorra dela ziurtatuko den. Entitate horrek bere gain hartuko ditu instalazio-prozesuaren gastu guztiak.

3. EZAUGARRI TEKNIKOAK

3.1.- Euskarri finkoak: GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

Kardio-babeserako gailua urruneko kudeaketa-sistema batera konektatutako dorre batzuetan kokatuko da (kardio-erreskaterako zutabeak); urruneko kudeaketa-sistemak etengabeko monitorizazio ahalbidetuko du, zerbitzuaren funtzionamendu-egoeraren berri izateko (telefono bidezko komunikazioa eta desfibriladorea) eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.

Kudeaketa-sistemak alarma-programa bat izan beharko du, ekipamenduen jardun egokiari eragiten dion edozein intzidentziaren berri emateko, eta jakin ahal izateko alarma piztu duen gertakari bakoitzaren arrazoia (erabilera, bandalismoa, matxura).

Zutabe bakoitzak ondorengo elementu eta ezaugarriak izan beharko ditu:

- ♦ Kabinak inpaktuekiko erresistenteak izango dira, eta indarrean dagoen araudian ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte.
- ♦ Euskarri bertikaleko instalazioa.
- ♦ Sare elektrikoko elikatze-sistema.
- ♦ Larrialdietako sarerako telefono-konexiorako protokoloa, eskaintzan zehaztuko dena.
- Material erresistenteekin egindakoak izango dira, haien diseinua ergonomikoa izango da eta komunikazio-sistema integratuko dute.
- Ikusteko modukoak izango dira eta identifikagarriak distantzia erdira; kardio-babeseko gunea dela adierazteko kartelak eta *International Liaison Committee on Resuscitation* (ILCOR) delako komitearen ikurra jarriko dira. Aurrealdean biziraupenerako katea azalduko da eta nola jardun behar den adieraziko duten piktogramak. Alboetan AED (anglosaxoia) eta DAE (latina) etiketak agertuko dira, eta horien artean desfibrilazioa adierazteko erabiltzen den ikurra (arku elektrikoak apurtutako bihotza) eta 112–SOS Deiak larrialdietako telefonoari dagokion errotulazioa, logotipo ofizialaren arabera. Agertuko dira ere desfibriladorea erabiltzeko jarraibideak (Bihotz-biriketako bizkortzea, BBB).
  Jarraibideak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, eta Eusko Legebiltzarraren logotipoa izango dute. Instalazioa egin aurretik Eusko Legebiltzarrak eredua berrikusi eta egiaztatuko du.
- Zutabea ireki edo desfibriladorea hartzerakoan, erabakitakoaren arabera, alerta-sistema automatikoki aktibatuko da, eta alarmak soinu eta argiaren bidez irekieraren berri emango du.
- Elikatze-iturri autonomo erredundantea izango dute elektrizitate-mozketei aurre egiteko.

Eusko Legebiltzarrak ahots- edo datu-sarerako sarbidea erraztuko du, segurtasun politiken arabera.

Enpresa hornitzaileak ezin izango ditu zerbitzuak konektatu Legebiltzarrean kokatuta dauden ekipamenduetara Eusko Legebiltzarraren pertsonalaren aldez aurreko baimenik gabe, (jarduera bakoitzak baimena beharko du).

Datuak bidaltzeko protokoloak TCP/IPn oinarrituko lirateke. Esate baterako SMTP.

Zutabeen instalazioa, sarearen puntuekiko konexioa, larrialdietako protokoloarekin integratzea, elementu ezberdinen konfigurazioa eta sistema abian jartzea esleipendunaren kargura izango dira.

3.2. Kanpoko erabilerarako desfibriladore semiautomatikoa: GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

- Indarrean dagoen araudiaren arabera, DESA gailuak ondorengo ezaugarriak izan behar ditu:

1. Aplikagarria den araudiaren araberako segurtasun-betekizunak betetzea; esleipendunek bermatu beharko dute, fabrikatzaileek edo beraiek egindako ziurtagirien bidez, ekipamendua guztiz segurua dela pertsonentzat, intzidentziak izanez gero erantzukizun osoa bere gain hartuko dutela adieraziz.
2. CE markaduna izango da.
3. DESA gailuaren mantentze- eta kontserbatze-egoera une oro erabiltzeko baldintza egokietan dagoela bermatzen duen prebentziozko eta konpontzeko mantentzearen eguneratutako erregistro-liburua, paperezkoa edo digitala, enpresa fabrikatzailearen jarraibideen arabera.
4. Desfibriladorea eskuz desaktibatu ahal izango da edo era automatikoan pazienteari desfrilazio-elektrodoak deskonektatuz.
5. Intuitiboa eta erraz erabiltzeko eta garraiatzeko modukoa izango da, irudi didaktikoak eta elektrodoen ilustrazioak izango dituzten kartelak izango ditu, eta egin beharreko pausu bakoitzari buruzko jarraibide argiak emango ditu, ahots-mezuez gidatutako laguntza-sistema baten bidez; ahots-mezuak gutxienez gaztelaniaz izango dira, eta lagunduko dute DESA gailua erabiltzen eta pausuz pausu bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) era egokian egiten. Metronomo bat izango da ere bizkortzearen erritmoa markatzeko, nazioarteko azken gomendioen arabera (30 aldiz bularra sakatu: 2 aldiz haize eman). Ahozko jarraibideak erabiltzailearen abiadurara egokituko dira. Ahots-jarraibideak
6. Datuak ikusi, atera eta tratatzeko softwarea izango du.
7. Behin erabiltzeko litio-bateria, gutxienez 200 deskarga eman edo 4 orduz funtzionatzeko prestatua. Bateriaren iraupena gutxienez 4 urtekoa izango da. Barne-memoriak elektrokardiogramaren lehen 15 minutu erregistratu eta bildu ahal izango ditu, gertaerak grabatuko ditu eta gertatutako guztiaren analisi eta gorabeherei buruzko erabakiak. Informazio hori erraz eraman ahal izango da bistaratu eta datuak tratatzeko softwarera.
8. Desfibriladorea erabiltzen bada, erabilpenaren jakinarazpena 72 orduko gehienezko epean egingo da, 9/2015 Dekretua garatzen duen Osasun sailburuaren 2016ko maiatzaren 30eko Aginduaren 7. artikuluaren arabera.
9. DESA erabili ondoren jasotako informazioa tratatzea ahalbidetzen duen programa informatikoa bateragarria izan beharko da Windows plataformekin.
10. Fidagarria eta segurua izan beharko da.
11. Ekipamendua eramangarria eta konpaktua izango da, eta ez du 3 kg baino gehiago pisatuko.
12. Kargatzeko denbora 8 segundu baino gutxiago izango da, eta, amaitzean, igorri beharko du ahots-mezu bat, deskargatzen hasteko adieraziko duena. Bestalde, deskargen arteko zikloa 20 segundu baino laburragoa izango da.
13. Behin erabiltzeko elektrodo/adababakiak, merkatuko desfibriladore modelo guztientzako balio dutenak eta 2 urteko gutxieneko iraupen-data dutenak.
14. Eguneratutako ERC/AHA gidekin konfiguratua.

15. Ebaluatuko dira pazientearen EKGa, seinalearen kalitatea, elektrodoen kontaktuaren integritatea eta biktimaren inpedantzia, desfibrilazioa beharrezkoa den ala ez erabakitzeko.
16. Testu-mezuak, alerta entzungarriak, egoera-adierazlea, bateria-adierazlea, energia erabilgarriaren adierazleak.
17. Energia kargatzen ari dela adierazteko tonua, energia erabilgarri dagoela adierazteko tonua, deskarga-botoi keinukaria.
18. Ekipamendua ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko autoazterketa.
19. Desfibrilaziorako elektrodoen integritate-testa.
20. Bateria sartzeko testa.
21. Matxuraren berri emateko argi- eta soinu-adierazleak, eta mantentzerako abisua.
22. Hezetasunarekiko eta eguraldiaren gorabeherekiko erresistentea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
23. 0 eta 50º bitarteko funtzionamendu-tenperatura
24. Metro batetik edozein ertz, izkin edo gainazalaren gaineko eroriekiko erresistentea.
25. Taupada-markagailuaren seinale artefaktatuak eta seinale elektrikoak gutxienera murriztea.
26. EKG seinalearen etengabeko bilketa, gertakariekin eta audioarekin batera.
27. USB konexioa, erabiliz gero datuak deskargatzeko
28. Zorro batekin hornituko da, kabinatik ateratzen denean errazago garraiatzeko, eta BBBrako kit bat izango du, gutxienez honako hauek osatuta: arropa mozteko artaziak, ahoz ahoko suspertzerako maskara, ilea kentzeko gailua eta nitrilozko eskularruak.
29. Erabilera pediatrikorako aukera izango du, eta horri dagozkion elementuez hornituko dira.

4. PERTSONALA FORMATZEA ETA TREBATZEA

Homologatutako prestakuntza-programa izango du, gutxienez 6 ordukoa, eta indarrean dagoen araudiaren arabera behar diren administrazio-izapideez arduratuko da.

Prestakuntza gutxienez 10 pertsonek jasoko dute desfibriladore bakoitzeko. Bi desfibriladore direnez, formakuntza bi talde eta une ezberdinetan eman ahal izango da, Eusko Legebiltzarrak horrela eskatzen badu, edozein unetan, kontratua indarraldian dagoen bitartean. Legebiltzarrak erabakiko du ikastaro bakoitza Euskadiko zein hizkuntza ofizialetan eman beharko den.

Erakunde ofizial batek aitortutako abala duen bizi-euskarriko larrialdi-zerbitzuko espezialista batek emango du formakuntza.

Eusko Legebiltzarrak aukeratutako edozein pertsonak egin ahal izango du formakuntza; gutxienez 10 instalatutako ekipamendu bakoitzeko.

Esleipendunak diploma edo agiri bana luzatuko dio ikastaroa egin eta gainditu duen parte-hartzaile bakoitzari; agiriak gailua maneiatzeko formakuntza jaso dutela egiaztatuko du.

Formakuntza berriz egingo da nazioarteko erakundeen gomendio berriak argitaratzen direnean.

Formakuntzaren eta horren eguneratzeen kudeaketa sartuta egongo da lehiaketaren lizitazio-prezioaren barruan.

Formakuntzak lehen esku-hartzerako izendatutako pertsonala akreditatuko du, eta horren edukia izango da oinarrizko bizi-euskarria eta desfibriladore semiautomatikoen erabilera; gutxienez ondorengo edukiak garatuko ditu:

IKASTAROAREN DESKRIBAPENA / HELBURUA

Formakuntza-ikastaroak teoriko-praktikoak izango dira, BBB manikiak eta DESA "trainner" erabilita, eta gutxienez ondorengo gaiak jorratuko dira:

IKASTAROAREN HELBURUAK

- Pertsona batek larrialdiko osasun-arreta noiz behar duen eta noiz ez bereiztea.
- 112ra noiz deitu behar den eta noiz ez den deitu behar jakitea.
- Pertsona baten bizia arriskuan egon daitekeen egoerei aurre egiteko gai izatea, oinarrizko teknika erraz batzuk erabilita.
- Desfibrilazioaren zergatia ezagutzea, bihotz-hutsegitea izan duen pertsona baten bizitza salbatzeko tresna gisa.
- Ikasleari erakustea bihotz-arnasketa arazo larriak dituzten helduei zein haurrei bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-maniobra egiten.
- Ikasleari erakustea desfibriladore semiatumatikoak maneiatzen.

Eduki teorikoak:

• DEA instalatu eta erabiltzeko derrigortasunari buruzko EAEko araudia.
• 112-SOS DEIAK zerbitzuarekin komunikatzea.
• Oinarrizko balorazioa, eta zer egin norbait konorterik gabe geratzen denean.
• Oinarrizko euskarria: oinarrizko ezaguerak.
• Biziraupen-katea eta kanpoko desfibrilazioa. Horren garrantzia bihotz-gelditzean.
• Bat-bateko heriotza (bihotz-gelditzea), eta fibrilazio bentrikularraren esanahia.
• Kanpoko desfibriladore automatikoa: funtzionamendua eta mantentzea.
• Kanpoko desfibriladore semiautomatikoaren jarduera-sekuentzia (Europako Berpizte Batzordearen irizpideen arabera).
• DESA gailua erabili ondoren bete beharreko administrazio-eginkizunak, 2016ko otsailaren 27ko 9/2015 Dekretuaren III Eranskinaren arabera.
• Legeria eta etika

Eduki praktikoak:

- BBB heldu, haur eta bularreko haurretan. (BBB 2015 gomendioak)
- DESA gailuaren erabilera. Oinarrizko bizi-euskarriko eta ekipamenduaz lagundutako oinarrizko bizi-euskarriko maniobren praktikak, erreanimazioa egiteko pertsona bakar batekin.

- Oinarrizko bizi-euskarriko eta ekipamenduaz lagundutako oinarrizko bizi-euskarriko maniobren praktikak, erreanimazioa egiteko bi pertsonekin..
- Aire-bideetako buxadura kentzea.
- Bihotz-desfibrilazioko praktikak. Segurtasun- eta mantenu-arauak.
- Praktika: hainbat agertokien simulazioa.

5. BIHOTZ-LARRIALDIRAKO EKIPAMENDUAREN ELEMENTU GUZTIEN MANTENU INTEGRALA, KONEXIO-SISTEMARENA BARNE

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 298. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunaren ardura izango da sistema, ekipamenduak eta kontratatutako elementu guztiak hornitzea, instalatzea eta mantentzea, kontratuaren indarraldian zehar, eta horien funtzionamendu egokiaz ere arduratuko da.

Mantentze-zerbitzuak mantentze prebentiboa eta matxuren konponketa egiteko laguntza teknikoa eman beharko du.
Lizitatzaileak kontratuaren indarraldirako mantenimendurako prezioa aurkeztuko du eskaintzan; prezio horrek barne hartuko ditu mantentzeari lotutako kostuak, baita erabilera, matxura edo iraungitzeagatik desfibriladoreetan aldatu beharreko elementu suntsikorrak (elektrodoak eta bateriak) aldatzearen kostuak ere. au da, esleipendunak ezin izango du beste kosturik erantsi kontratuaren indarraldian zehar.

Mantentzean sartuko dira piezak eta eskulana, eta horretarako akreditatutako pertsonal teknikoa izan beharko du; gutxienez ondorengo mantentze-lanak egingo dira:

– Matxuren urruneko diagnostikoa eta konponketa

Jarraian aipatzen dira bihotz-erreskaterako ekipamenduen kontrolerako plataforman egunero egin beharreko laguntza tekniko eta mantentze-lanak. Eguneroko lan hauek balio dute sor daitezkeen intzidentziei aurre hartzeko, hobetzeko, eta zerbitzuaren errendimendua hoberena izateko.

- Desfibriladorearen autoazterketa osoa egin beharko du, elementu hauek barne: bateriaren karga, barne-zirkuituak eta elektrodoen gelaren egoera.
- Zentralizatutako mapatik egiaztatuko da denbora errealean elementuen egoera.
- Zutabeen alarma-zerrenda ikusiko da.
- Elementu guztiekiko komunikazioa aztertuko da konektibitatea badagoela egiaztatzeko eta, horrela, urruneko interbentzioak egiteko aukera bermatzeko.

Mantentze prebentiboa

- Ekipamenduaren mantentze prebentiboak bermatu beharko du une oro sistema ondo dabilela. Aldiro egingo da eta tekniko bat gutxienez sei hilero bertaratuko da (bi bisita urtero), sistemaren elementu guztien funtzionamendua egokia dela eta horien egoera hona dela egiaztatzeko; gutxienez ondorengo mantentze-lanak egingo dira:

- Ekipamendu osoa, hardwarea zein softwarea, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea.

- Elementuen kontserbazio-egoera ona dela egiaztatzea.
- Alarma eta gertakariak identifikatzea.
- Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoa den edozein elementu une oro aldatzea, behar izanez gero.

  Ikuskapen horiek egin ondoren, dagozkien txostenak luzatuko dira. Txosten horiek egin diren egiaztapenak deskribatuko dituzte, eta sistemaren egoera ona dela egiaztatuko dute, beharrezkoak diren konponketa eta doiketak egin ondoren.

  Kontratuaren indarraldian nazioarteko gomendioak direla-eta ekipamenduen softwarearen egin behar diren eguneratzeak esleipendunak egin beharko ditu eta bere kontura izango dira.

Zuzentzeko mantentzea

Sisteman matxura edo funtzionamendu okerren bat antzematen denean, berehala burutuko dira ondorengo ekintzak:

- Matxura antzeman edo intzidentziaren berri izan ondoren, matxura lokalizatuko da eta bisita presentziala egingo da gehienez ere 24 orduko epean.
- Akastun elementuak aldatzea.
- Funtzionamenduaren berrikuspen orokorra: elektrodoak, bateria, sentsoreak, eta abar…
- Zerbitzua abian jartzea.
- Terminaletan esku-hartzeren bat egin ondoren txosten bat luzatuko da, zeinetan ondorengo xehetasunak jasoko diren: antzemandako arazoa; hori konpontzeko erabilitako baliabideak; eta ekipamenduen azken egoera berrikuspen edo konponketaren ondoren.

- Intzidentziak ebaztea eta akastun elementuak aldatzea. Desfibriladorea erabili ondoren, informazioa bilduko da, informazio hori tratatu ahal izateko, elektrodoak aldatuko dira, eta funtzionamenduaren berrikuspen orokorra egingo da. Erantzuteko denbora, edonola ere, 24 ordu baino gutxiago izango da.
- Softwarea mantentzea. Informazioaren jarraipena eta kudeaketa egiteko beharrezkoa den softwarea instalatuko da, eta beharrezkoak diren moldaketa edo eguneratzeak egingo dira unean-unean indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. Intzidentziak ebaztea.

Iraungitze-data duten ordezko piezen kontrol berezia egingo da.
Kanpoko desfibriladore semiautomatikoa erabili ondoren, beharrezkoak diren elementuak aldatuko dira (elektrodoak, bateriak, eta abar…) berriz ere funtzionatzeko moduan uzteko zerbitzua, eta desfibriladorean bildutako informazioa aterako da tratatua izan ahal izateko. Erantzuteko denbora ez da inola ere 24 ordu baino gehiago luzatuko intzidentzia antzeman zenetik. Enpresa esleipendunak baliabideak izan behar ditu erabilera-txostena emateko araudiz ezarritako epean.

Intzidentzia lehen aldiz antzeman zenetik 24 ordu igaro ondoren ezin balitz konpondu, edo desfibriladoreak kanpora eraman beharko balira konpontzera edo urteroko egiaztapen edo kalibrazioak egitera, horiek ezin direlako bertan egin, entitate esleipendunak ardura izango du ekipamendu horien ordez ezaugarri berberak dituzten beste batzuk ezartzeko, jatorrizko

ekipamenduak konponduta itzuli arte. Esleipendunak garantiak tramitatu, eta ekipamenduak bidali, jaso eta aldatzeko ardura izango du, eta horiekin lotutako kostuak bere gain hartuko ditu. Erreskate-zutabean ekipamendu berria ezarriko da, zerbitzua une oro eman ahal izateko.

Softwarea mantentzea.

Beharrezkoak diren ekintzak burutuko dira bihotz-erreskaterako zutabeek informazioa kudeatzeko dituzten programa eta aplikazioak instalatu, aldatu eta desinstalatzeko operazioak egiteko, eta zerbitzua unean-unean indarrean dagoen legeriari egokitzeko.

6. LARRIALDI-SAREAREKIKO KONEXIOA

Zerbitzuak larrialdietako zerbitzu publikoei ohartarazteko sorospen-alarma sortu behar du; horrela, erabiltzen den unean, eta alerta-sistema baten bidez, larrialdietako sarearen jarduketa aktibatuko dute.

Halaber, bihotz-erreskaterako zutabeak urruneko kudeaketa-sistema batera konektatuta egon beharko dira; sistemak etengabeko monitorizazioa ahalbidetuko du, zerbitzuaren funtzionamendu-egoeraren berri izateko (telefono bidezko komunikazioa eta desfibriladorea) eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan. Kudeaketa-sistemak alarma-programa bat izan beharko du, edozein intzidentziaren berri emateko, eta jakin ahal izateko alarma piztu duen gertakariaren arrazoia (erabilera, bandalismoa, matxura). Sistemaren funtzionamenduaren egoerak etengabeko berrikuspen-sistema izan beharko du.

7. LEGE BIDEZKO BETEBEHARRAK ETA BESTE BETEBEHAR BATZUK

Enpresa esleipendunak unean-unean bete beharko du desfibriladoreak ingurune publikoetan ezartzeari buruz indarrean dagoen legeria, estatukoa, erkidegokoa edo udalekoa (Gasteizko Udala), eta honako ekintzak egin beharko ditu:

- Instalatuko diren desfibriladoreen autonomia-erkidegoari dagokion osasun-autoritatean inskribatzea.
- DESA gailua erabiltzeko prestatu den pertsonala inskribatzea eta horren jarraipena egitea.
- Ekipamenduak erabili ondoren, horren berri ematea eskumena duen agintaritzari.
- Ekipamenduak erabiltzen badira, esleipendunak honako hauek betetzearen ardura izango du: erabileraren berri eman osasun-zerbitzuei eta eskumena duten organismoei, dagokion erregistroa bete, eta ekipamenduetan bildutako datuak eman, egun indarrean dauden edo etorkizunean indarrean egongo diren lege-eskakizunen arabera.
- Enpresa esleipendunak erregistratutako datu guztiak gorde beharko ditu kontratua amaitu arte, jardun eta ekintzen trazabilitatea bermatu ahal izateko. Kontratua amaitu ondoren, enpresak datu horiek eman beharko dizkio Eusko Jaurlaritzari.
- Indarrean dagoen eta etorkizunean onar daitekeen estatuko eta autonomia-erkidegoko legerian ezarritako beste edozein administrazio-izapide.

ERANTZUKIZUNAK ETA BERMEAK: Esleipendunak 9/2015 Dekretuan zehaztutako arau-hausteren batetik eratorritako egoeren ardura bere gain hartuko du, jarduera desegokiagatik, eta

dagozkion zehapenak jasoko ditu. Halaber, instalatutako DESA gailuek eta kabinek, eta baita elementu suntsikorrek ere, erabilera-bermea izan beharko dute.

8. KONTRATATUTAKO ELEMENTUAK EGUNERATU ETA ALDATZEA

Kontratatutako elementu guztiek (desfibriladoreak, zutabeak eta softwarea) bete beharko dute une oro indarrean dagoen legeria; hori dela-eta egin beharreko eguneratze eta aldaketak esleipendunaren kargura egingo dira, EUSKO LEGEBILTZARRARI inolako kosturik erantsi gabe.

9. IRAUPENA ETA EPEAK

Kontratuaren iraupena 5 urtekoa izango da, zerbitzuaren hasiera-datatik zenbatzen hasita, eta bi aldeen adostasuna tarteko, urtez urte luza daiteke, bi urtez gehienez.

10. ESKAINTZA TEKNIKOA

1. Proposatutako desfibriladore modeloaren ezaugarri teknikoak.
2. Bihotz-erreskaterako ezaugarri teknikoak.
3. Aurreikusitako prestakuntza-programa.
4. Larrialdi-sarera edo EUSKO LEGEBILTZARREKO seguntasun-zentrora konektatzeko proiektua.
5. Kontratua egikaritzeko eskatzen diren baliabideak.
6. Mantentze-plana.

11. ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA ORDAINKETA-BALDINTZAK

Kontratuaren gehienezko aurrekontua 270 eurokoa da hilero, BEZa sartu gabe.

Ordainketa-baldintzei dagokienez, ordainketa honela egingo da:

Hileroko faktura izango da, hilea bukatzean.

12. AURKEZPENA ETA ESLEIPEN-BALDINTZAK

Lan honen esleipena arautuko duten irizpideei dagokienez, esleipena ebazteko kontratazio-organoak ondorengo irizpenak hartuko ditu kontuan:

12.1. Haztapen objektiborako irizpideak edo era automatikoan neurtzekoak

Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Prezioa. Gehienez ere, 50 puntu. 50 puntu emango zaizkio proposamen ekonomiko baxuena egiten duen eskaintzari, eta 0 puntu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua berdintzen duen eskaintzari; gainerako eskaintzen puntuazioa formula honen arabera lortuko da: X = 50 x (n/a), "n" da 270 eurori baloratu beharreko eskaintzaren prezioa kenduta lortzen den kopurua, eta "a" 270 eurori eskaintza ekonomikoenaren prezioa kenduta lortzen dena.

12.2. Balio-judizioaren arabera haztatu daitezkeen esleipen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Proiektu teknikoa eta ebazteko planteamendua: Gehienez ere, 40 puntu.

Bereziki baloratuko dira proposamenaren ezaugarri horiek biziraupen-aukerak areagotu eta osasunerako itzulezinak diren kalteak ekiditen dituztenak.

Proposatutako hobekuntzak: Gehienez ere, 10 puntu.

Eskaerak proposatu ditzakeen beste hobekuntza batzuez gain, honako hauek baloratuko dira:

Akordioak izatea Euskadiko larrialdi-zerbitzuekin.

Prebentzio-bisita gehiago urtero.

Elektrodoen egoera erreala aztertzea.

Soinu bidezko laguntza-sistema bihotz-biriketako bizkortzerako.

Egoitza izatea, edo bestela ordezkaritza, Euskadin.

Larrialdi-zerbitzuarekiko edo EUSKO LEGEBILTZARREKO segurtasun-zentroarekiko telefono-konexioaz gain, mezu elektronikoak bidaltzea EUSKO LEGEBILTZARREKO hainbat sailetara; mezu horietan oharraraziko da ekipamendua erabiltzen ari dela, eta posible dela une horretan gertaera kardio-baskularren bat izatea.

24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua urteko egun guztietan.



Aseguruaren zenbateko handiagoa.

EUSKO LEGEBILTZARRAren irudi korporatiboa jartzea zutabetan eta seinaleetan.

Bateriaren iraupen handiagoa

Zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA INSTALACION Y MANTENIMIENTO DE UNA RED DE EMERGENCIA INTEGRADA CON UN SISTEMA DE ALARMA Y DESFIBRILADORES EN DIVERSAS UBICACIONES DEL PARLAMENTO VASCO

1. OBJETO.

El presente pliego tiene por objeto la contratación de un servicio integral de cardioprotección que permita mejorar la asistencia de emergencias y los tiempos de respuesta en casos de fibrilación ventricular.

Es por ello que el objeto será la instalación y mantenimiento de DOS columnas de rescate y desfibriladores semiautomáticos (DESA) externos en los dos edificios (parlamentario y administrativo) de EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO.

2. CARACTERÍSTICAS GENERALES.

La red de emergencia instalada en las estaciones debe disponer de:

1. Instalación de 2 columnas contenedoras y 2 desfibriladores de uso externo semiautomático.
2. Mantenimiento integral del equipamiento del sistema: Mantenimiento preventivo, correctivo y remoto.
3. Sistema de alarma y comunicación de utilización a la red de emergencias y/o a los centros de seguridad definidos en cada caso, así como a un sistema de gestión remoto para su mantenimiento. (alta de línea telefónica y cuotas incluidas en el precio del contrato y por cuenta del adjudicatario)
4. Formación del personal no sanitario conforme a la normativa exigida para la adecuada utilización de los equipos
5. Ejecución de todos los trámites administrativos exigidos por la normativa vigente, incluyendo el alta de los desfibriladores en los servicios de emergencia del País Vasco.
6. Póliza de Seguro de Responsabilidad Civil con un límite de indemnización por siniestro y año no inferior a 1.100.000 euros. Así mismo, quedará amparada la responsabilidad civil directa de las personas que, no siendo empleadas directas o dependientes salarialmente de la empresa adjudicataria, prestan la atención inmediata de desfibrilación. Se detallarán los importes para la cobertura de estas reclamaciones por siniestro y año y por víctima.
7. La instalación y puesta en marcha de todos los elementos necesarios para la prestación del servicio se realizará en un plazo máximo de un mes desde la formalización del contrato. La certificación de la puesta en marcha incluirá una simulación real de la conformidad de todo el sistema. La entidad adjudicataria

elaborará un informe donde se deje constancia de los aspectos evaluados y de la total conformidad y operatividad de cada uno de los equipos instalados. Todos los gastos del proceso de instalación correrán a cargo de dicha entidad

3. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS

3.1.- Soportes fijos: CARACTERÍSTICAS MÍNIMAS

Las torres de ubicación del sistema (columnas de rescate cardíaco) deberán estar conectadas a un sistema de gestión remota que permita la monitorización permanente para conocer el estado de funcionamiento del servicio (comunicación telefónica, y desfibrilador) las 24 horas del día los 365 días del año.

El sistema de gestión deberá tener un programa de alarmas que notificará incidencias que afecten al estado de funcionamiento de los equipos permitiendo saber para cada suceso el motivo por el cual se ha generado la alarma (uso, vandalismo, avería).

Cada una de las columnas debe contener los siguientes elementos y características:

- Las cabinas deberán ser resistentes a impactos, así como cumplir con cualquier otro requisito establecido en la normativa vigente.
- Instalación en soporte a pie
- Sistema de alimentación de red electrica
- Que tenga un protocolo de Conexión telefónica a la red de emergencias. A especificar en la oferta
- Estarán fabricadas con materiales resistentes, tener diseño ergonómico e integrar el sistema de comunicaciones.
- Serán fácilmente visibles y claramente identificables a media distancia, conteniendo carteles de *espacio cardioprotegido,* la presencia del símbolo de la *International Liaison Committee on Resuscitation* (ILCOR) En la parte frontal figurará la cadena de supervivencia y pictogramas explícitos que muestren perfectamente su forma de uso. En los lados aparecen las etiquetas AED (anglosajón) y DAE (latín) separados por el símbolo específico de desfibrilación (corazón roto por un arco eléctrico) y la rotulación correspondiente al teléfono de emergencias 112 – SOS Deiak, de acuerdo a su logotipo oficial. También figurarán las instrucciones de uso del desfibrilador (Cadena de Reanimación Cardiopulmonar, RCP)
  Estas instrucciones figurarán en euskera y castellano, y llevarán el logotipo del Parlamento Vasco. Antes de su instalación el modelo será revisado y validado por el Parlamento Vasco.

- Al abrirse la columna o acceder al desfibrilador, según se determine, se activará automáticamente el sistema de alertas, y habrá un aviso de apertura mediante alarma visual y acústica.
- Incorporarán una fuente de alimentación autónoma auxiliar frente a cortes de suministro de la red eléctrica.

El Parlamento Vasco facilitará el acceso a la red de voz o a la red de datos de acuerdo a sus políticas de seguridad.

No se permitirán conexiones desde la empresa proveedora de los servicios a los equipos ubicados en el Parlamento sin autorización previa por parte del personal del Parlamento Vasco (cada actuación requerirá autorización).

Los protocolos de envío de datos estarían basados en TCP/IP. Por ejemplo SMTP

La instalación de las columnas, la conexión con los puntos de red, la integración con el protocolo de emergencia y la configuración de los distintos elementos y la puesta en marcha del sistema serán por cuenta del adjudicatario.

3.2.- Desfibrilador semiautomático de uso externo: CARACTERÍSTICAS MÍNIMAS

- De acuerdo con la normativa vigente el DESA deberá presentar las siguientes características:

1. Cumplir con los requisitos de seguridad que existan según la normativa aplicable; y los adjudicatarios deberán garantizar, mediante certificados de los fabricantes y/o autocertificados, la total seguridad del equipamiento en relación con las personas, detallando su total responsabilidad en caso de existir incidencias.
2. El marcado CE del aparato.
3. El libro de registro, en papel o informático, de mantenimiento preventivo y correctivo actualizado que garantice, en todo momento, el estado de mantenimiento y conservación en condiciones de uso del DESA, de acuerdo con las instrucciones de la empresa fabricante.
4. La desactivación del desfibrilador podrá realizarse manualmente o de forma automática al desconectar los electrodos de desfibrilación del paciente.
5. Deberá ser de manejo sencillo e intuitivo, fácil de utilizar y transportar, incluirá carteles informativos con imágenes didácticas e ilustraciones de los electrodos, y proporcionará indicaciones claras de cada uno de los pasos a seguir a través de un sistema de ayuda y guiado mediante mensajes de voz, al menos en castellano, para guiar tanto en el manejo del aparato DESA, como las indicaciones necesarias para realizar paso a paso una correcta Reanimación Cardiopulmonar

(RCP), y un metrónomo que marca el ritmo de acuerdo a las últimas recomendaciones internacionales (30 compresiones: 2 insuflaciones) Adecuará las Instrucciones verbales a la velocidad de manejo del usuario. Instrucciones de voz

6. Dispondrá de un Software de visualización, extracción y tratamiento de datos.
7. Batería de litio desechable preparada para dar al menos 200 descargas o 4 horas de funcionamiento. La duración de la batería será como mínimo de 4 años de duración. La memoria interna deberá poder registrar y almacenar los primeros 15 minutos del ECG y grabación de acontecimientos, así como las decisiones sobre el análisis y los sucesos de todo el incidente. Esta información deberá ser fácilmente exportable al software de visualización y tratamiento de datos.
8. En caso de uso del DEA, comunicación en un plazo no superior a 72 horas de la comunicación prevista en el artículo 7 de la Orden 30 de mayo de 2016, del Consejero de Salud, por la que se desarrolla el Decreto 9/2015.
9. El programa informático que permite el tratamiento de la información recogida tras la utilización del DESA deberá ser compatible con plataformas Windows.
10. Deberá ser de uso fiable y seguro.
11. Equipo portátil, compacto y peso inferior a 3 kg.
12. El tiempo de carga debe ser inferior a 8 segundos y, al finalizar, deberá emitir un mensaje de voz indicando que se proceda a la descarga. Por otra parte, la duración del ciclo entre descargas deberá ser inferior a 20 segundos.
13. Electrodos/parches desechables para todos los modelos de desfibriladores del mercado, con fecha de caducidad de al menos 2 años.
14. Configurado con guías ERC/AHA actualizadas.
15. Evaluación del ECG del paciente, de la calidad de la señal, de la integridad del contacto de los electrodos y de la impedancia de la víctima para determinar si es necesaria o no la desfibrilación.
16. Mensajes de texto, alertas audibles, indicador de estado, indicador de batería, indicadores de energía disponible
17. Tono cargando energía, tono energía disponible, botón de descarga parpadeante.
18. Autochequeo diario para asegurar el correcto funcionamiento del equipo.
19. Test de integridad de los electrodos de desfibrilación.
20. Test de inserción de la batería.
21. Indicadores luminosos y acústicos en caso de avería y aviso para mantenimiento.
22. Resistente a la humedad y a las inclemencias del tiempo, de acuerdo con la normativa vigente.
23. Temperatura de funcionamiento entre 0-50°.
24. Resistente a caídas desde 1 metro sobre cualquier borde, esquina o superficie.
25. Reducción de las señales artefactadas del marcapasos y eléctricas al mínimo.
26. Almacenamiento de la señal ECG continua junto con los eventos y el audio.
27. Conexión USB para descarga de datos en caso de uso.

28. Se suministrará con funda que facilite su transporte una vez sacado de la cabina y un kit de RCP compuesto de, al menos, tijera corta ropa, mascarilla boca – boca, rasuradora y guantes de nitrilo.
29. Contará con opción pediátrica y se suministrarán los elementos compatibles correspondientes.

4. FORMACIÓN Y ADIESTRAMIENTO DEL PERSONAL.

Incluye un programa de formación homologada de duración mínima de 6 horas y encargándose de los trámites administrativos requeridos por la normativa vigente.

Dicha formación se impartirá al menos a 10 personas por cada desfibrilador. Al ser dos desfibriladores, se podrá dar, si el Parlamento Vasco así lo dispone, en dos grupos y momentos distintos, en cualquier momento a lo largo de la vigencia del contrato. El Parlamento señalará para cada curso el idioma oficial del País Vasco en que habrá de impartir.

La formación será impartida por especialista en servicio de emergencias de soporte vital con aval reconocido por organismo oficial.

Podrá acceder a la formación cualquier persona que elija el Parlamento Vasco, desde un mínimo de 10 por equipo instalado.

El adjudicatario expedirá un diploma o certificado a cada asistente al curso de formación que supere el mismo, certificado que les acreditará para el manejo del desfibrilador.

La formación se repetirá de nuevo con la publicación de las nuevas recomendaciones publicadas por los organismos internacionales.

La gestión de la formación y sus correspondientes actualizaciones quedará incluida dentro del precio de la licitación del concurso.

Se basará en los contenidos de *Soporte vital básico y utilización de desfibriladores semiautomáticos* que acredite al personal designado a tal efecto como primer interviniente, y que al menos desarrolle los siguientes contenidos:

DESCRIPCIÓN / PROPÓSITO DEL CURSO:

Los cursos de formación serán teórico-prácticos con ayuda de maniquíes de RCP y DESA "trainner" y se tratarán al menos los siguientes temas:

OBJETIVOS DEL CURSO:

- Detectar cuándo una persona requiere asistencia sanitaria urgente y cuándo no.
- Saber cuándo es necesario alertar y cuándo no al 112 y qué datos aportar.
- Ser capaces, de enfrentarse, con una serie de técnicas básicas y sencillas, a situaciones en la que la vida de una persona puede estar en peligro
- Conocer el porqué de la desfibrilación, como herramienta fundamental para salvar una persona víctima de un fallo cardíaco.
- Habilitar al alumno o alumna para realizar maniobras de reanimación cardiopulmonar básica en el adulto y en el niño con problemas cardio-respiratorios graves.
- Habilitar al alumno o alumna para el manejo de los desfibriladores semiautomáticos.

Contenidos teóricos:

• Normativa de la CAPV en materia de obligatoriedad de instalación y utilización de DEA.
• Comunicación con el 112-SOS DEIAK.
• Valoración básica y actuación ante el sujeto inconsciente.
• Soporte vital: conocimientos básicos.
• Cadena de supervivencia y desfibrilación externa. Su importancia en la parada cardíaca.
• Muerte súbita (parada cardíaca) y el significado de la fibrilación ventricular.
• Desfibrilador semiautomático externo: funcionamiento y mantenimiento.
• Secuencia de actuación (según los criterios del Comité Europeo de Resucitación) para el desfibrilador semiautomático externo.
• Cumplimiento administrativo correspondiente tras el uso de un DESA conforme al ANEXO III, del decreto 9/2015 de 27 de febrero de 2016.
•Legislación y ética.

Contenidos prácticos:

- RCP en adultos y en niños y/o lactantes. (Recomendaciones ERC 2015).
- Manejo del DESA. Prácticas de las maniobras de soporte vital básico y soporte vital básico con equipo con un reanimador/a.

- Prácticas de las maniobras de soporte vital básico y soporte vital básico con equipo con dos personas reanimadoras.
- Desobstrucción de la vía aérea.
- Prácticas de desfibrilación cardíaca. Normas de seguridad y mantenimiento.
- Práctica: diferentes escenarios con simulación.

5. MANTENIMIENTO INTEGRAL DEL EQUIPO DE EMERGENCIA CARDIACA EN TODOS SUS ELEMENTOS, INCLUIDO EL SISTEMA DE CONEXIÓN.

En virtud de lo establecido en el artículo 298 de la LCSP, el adjudicatario será el responsable del suministro, instalación y mantenimiento del sistema y de sus equipos y de todos los elementos contratados, durante el plazo de vigencia del contrato, siendo su responsabilidad el adecuado funcionamiento de los mismos.

El servicio de mantenimiento deberá cubrir la asistencia técnica tanto en el mantenimiento preventivo como en la reparación de averías.
El precio de mantenimiento presentado por el licitador en su oferta, para el periodo de vigencia del contrato, incluirá todos los costes asociados a tal mantenimiento, incluyendo los relativos a la sustitución de fungibles de los desfibriladores (electrodos y/o baterías) por uso, avería o caducidad. Es decir, el adjudicatario no podrá imputar ningún coste añadido durante la vigencia del contrato.

Dicho mantenimiento debe incluir piezas y mano de obra, para lo que debe tener personal técnico acreditado, y se concretará en, al menos, las siguientes operaciones:

- Diagnóstico y resolución remota de averías.

A continuación se enumeran las tareas de soporte técnico y mantenimiento diarias que serán realizadas en la Plataforma de Control de los Equipos de Rescate Cardíaco. Estas tareas diarias sirven para anticiparse a posibles incidencias, mejorar y hacer que el rendimiento del servicio sea óptimo.

- Deberá realizar un autochequeo diario completo del desfibrilador. Incluyendo capacidad de la batería, circuitos internos y estado real del gel de los electrodos.
- Comprobar en tiempo real el estado de los elementos desde el mapa centralizado.
- Ver el listado de alarmas de las columnas.
- Chequear la comunicación con todos los elementos para comprobar que existe conectividad y garantizar de esta manera la posibilidad de realizar intervenciones remotas.

- Mantenimiento preventivo

- El mantenimiento preventivo del equipamiento deberá garantizar en todo momento el correcto funcionamiento del sistema. Se realizará periódicamente y se basa en realizar como mínimo una visita presencial de un técnico cada 6 meses (2 visitas anuales), al efecto de realizar comprobaciones del correcto funcionamiento y buen estado de todos los elementos del sistema, y que como mínimo incluye las siguientes tareas:

- Realización de comprobaciones del correcto funcionamiento de todo el equipamiento: hardware y software.
- Comprobación del buen estado de conservación de los elementos.
- Identificación de alarmas y eventos.
- Sustitución ilimitada de cualquiera de los elementos necesarios para la prestación del servicio.

  Tras la realización de tales revisiones se emitirán los correspondientes informes que describan las comprobaciones realizadas y certifiquen el correcto estado de los mismos tras realizar las correcciones y ajustes necesarios, en su caso.

  Las posibles actualizaciones de software de los equipos debidas a recomendaciones internacionales que pudieran ser necesarias durante el período de vigencia del contrato, deberán ser realizadas por el adjudicatario y correrán a cargo de éste.

- Mantenimiento correctivo

Cuando se detecte una avería o mal funcionamiento del sistema, de forma inmediata, llevará a cabo las siguientes acciones:

- Localización de la avería y visita presencial en menos de 24 horas tras detección de la avería y/o notificación de la incidencia.
- Sustitución de los elementos defectuosos.
- Revisión general de funcionamiento: electrodos, batería, sensores, etc...
- Puesta en marcha del servicio.
- Siempre que se realice cualquier intervención sobre los terminales se emitirá un informe de actuación en el que se detalle el problema detectado, los medios utilizados para su subsanación y el estado final de los equipos tras la revisión o reparación.

- Resolución de incidencias y sustitución de elementos defectuosos. Tras el uso de un desfibrilador, se procederá a la extracción de información para su posterior

tratamiento y al cambio de electrodos, así como a una revisión general de funcionamiento. El tiempo de respuesta, en cualquier caso, deberá ser inferior a 24 horas.

- Mantenimiento de software. Instalación del software requerido para el seguimiento y la gestión de la información, así como las modificaciones o actualizaciones que fueran precisas para el cumplimiento de la legislación vigente en cada momento. Resolución de incidencias.

Se llevará un control específico de aquellos repuestos que cuenten con fecha de caducidad. Cuando haya sido usado el Desfibrilador Externo Semiautomático se realizarán las reposiciones necesarias (electrodos, baterías, etc...) para dejar en funcionamiento nuevamente el servicio y procederá a la extracción de la información almacenada en el desfibrilador para su posterior tratamiento. El tiempo de respuesta no superará en ningún caso las 24 horas desde la detección inicial de la incidencia. La Empresa adjudicataria debe tener los medios para entregar el informe de uso en el plazo que indica la normativa

Si en el plazo de 24 horas desde la detección inicial de la incidencia, no se pudiera corregir, o si los desfibriladores tuvieran que ser enviados al exterior para realizar reparaciones o verificaciones/calibraciones anuales por no poder realizarse estas "in situ", la entidad adjudicataria será responsable de realizar la sustitución de tales equipos con otros de las mismas características, hasta la recepción de los originales reparados. El adjudicatario asume la responsabilidad y costos asociados con la tramitación de garantías, envío, recepción y sustitución de equipos.
Se instalará un equipo nuevo en la columna de rescate para mantener la prestación del servicio en todo momento.

- Mantenimiento de Software

Se llevarán a cabo las actuaciones que sean necesarias para realizar las operaciones de instalación, modificación y desinstalación de los programas y aplicaciones con los que cuentan las columnas de Rescate Cardíaco para la gestión de la información así como para adaptar el servicio a la legislación vigente en cada momento.

6. CONEXIÓN A RED DE EMERGENCIA.

El servicio debe generar una alerta de socorro a los servicios públicos de emergencias, de forma que en el momento de su uso y mediante un sistema de alerta activen la actuación de la red de emergencias.

Así mismo, las columnas de Rescate Cardiaco deberán estar conectadas a un sistema de gestión que permita la monitorización permanente para conocer el estado de funcionamiento del servicio (comunicación telefónica y desfibrilador) las 24 horas del día los 365 días del año. El sistema de gestión contará con un programa de alarmas que notificará cada suceso permitiendo saber el motivo por el cual se ha generado la alarma (uso, vandalismo, avería). El estado de funcionamiento del sistema deberá incluir un sistema de comprobación permanente.

7. OBLIGACIONES LEGALES Y OTRAS

La empresa adjudicataria deberá cumplir la legislación vigente que surja en cualquier momento a nivel nacional, autonómico o municipal (Ayto. de Vitoria) al respecto de la instalación de desfibriladores en entornos públicos, debiendo abarcar acciones como:

- Inscripción en la autoridad sanitaria competente en la comunidad autónoma de los desfibriladores instalados.
- Inscripción y seguimiento del personal formado para el uso del DESA.
- Comunicación a las autoridades competentes tras la utilización de equipos.
- En el caso de que sean utilizados los equipos, será responsabilidad del adjudicatario la
- comunicación a los servicios sanitarios y organismos competentes, de cumplimentar el oportuno registro y aportar los datos almacenados en los equipos, según exigencias legislativas o futuras.
- La empresa adjudicataria tendrá la obligación de guardar hasta la finalización del contrato todos los datos registrados, con el fin de garantizar la trazabilidad de las actividades y actuaciones. Una vez finalizado el contrato, la empresa deberá aportar tales datos al Parlamento Vasco.
- Cualquier otro trámite administrativo establecido en la legislación nacional y autonómica vigente y la que pueda aprobarse en el futuro.

RESPONSABILIDADES Y GARANTÍAS: El adjudicatario se responsabilizará de aquellas situaciones que deriven en alguna de las infracciones detalladas en el Decreto 9/2015 por su inadecuada actuación y asumirá las sanciones correspondientes. Del mismo modo, los DESA y cabinas instaladas así como los elementos fungibles deberán tener una garantía de uso.

8. ACTUALIZACIÓN Y MODIFICACIÓN DE LOS ELEMENTOS CONTRATADOS.

Todos los elementos contratados (desfibriladores, columnas y software) deberán cumplir en todo momento la legislación vigente, por lo que aquellas actualizaciones o modificaciones

que fueran necesarias correrán a cuenta del adjudicatario, sin suponer coste adicional alguno para EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO.

9. DURACIÓN Y PLAZOS.

La duración del contrato será de 5 AÑOS, contados a partir de la fecha de inicio del servicio, prorrogable de mutuo acuerdo de las partes, año a año, por un periodo máximo de dos años.

10. OFERTA TÉCNICA.

1. Características técnicas del modelo de desfibrilador propuesto.
2. Características técnicas de la columna de Rescate cardiaco.
3. Programa de formación previsto.
4. Proyecto de conexión a la red de emergencia o al centro de seguridad de EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO
5. Medios disponibles exigidos para la ejecución del contrato.
6. Plan de mantenimiento.

11. OFERTA ECONÓMICA Y CONDICIONES DE PAGO

El presupuesto máximo del contrato es de 270 euros sin IVA mensuales.

En cuanto a las condiciones de pago, este se efectuará de la siguiente manera:
Contra factura mensual a mes vencido.

12. PRESENTACIÓN Y CONDICIONES DE ADJUDICACIÓN

En lo relativo a los criterios que regirán la adjudicación de este trabajo el Órgano de Contratación tendrá en cuenta a la hora de resolver los siguientes criterios:

12.1. Criterios de Ponderación Objetiva o cuantificables de forma automática

Se considerarán los siguientes criterios:

• **Precio. Hasta 50 puntos.** Se atribuirán 50 puntos al oferente cuya proposición económica sea más baja, y 0 puntos a la oferta que iguale el presupuesto base de licitación, la puntuación del resto de ofertantes, se hará conforme a la siguiente fórmula: X = 50 x (n/a), siendo "n" el resultante de restar a 270 el

precio de la oferta a valorar, y "a" el resultante de restar a 270 el precio de la oferta más económica.

12.2. Criterios de Adjudicación Ponderables en Función de un juicio de valor

Se considerarán los siguientes criterios:

Proyecto técnico y Enfoque de Solución: Hasta 40 puntos.

Se valorarán especialmente las características de la propuesta que aumenten las probabilidades de supervivencia y de evitación de daños irreversibles a la salud.

Mejoras planteadas: Hasta 10 puntos.

Además de otras mejoras que pueda proponer el oferente, se valorará:
Existencia de acuerdos con los Servicios de Emergencias de Euskadi
Mayor número de visitas preventivas anuales
Chequeo del estado real de los electrodos
Sistema de ayuda a la Reanimación cardiopulmonar vocal
Disponer de sede, o en caso contrario de delegación en el País Vasco
Fuera del ámbito de la conexión telefónica al servicio de emergencias o al centro de seguridad de EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO, realizar el envío de correos electrónicos a diferentes departamentos de EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO en los que se notificará la utilización del equipo y la posibilidad de que esté sucediendo un evento cardiaco.

Servicio de atención telefónica las 24 h todos los días del año

Mayor cuantía del seguro

Hacer figurar la imagen corporativa de EUSKO LEGEBILTZARRA-PARLAMENTO VASCO en las columnas y la señalética.

Mayor duración de la batería.

Capacidad para prestar el servicio en euskera